

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko martxoaren 22an egindako tailerraren akta



Aurkezpena: tailerraren planteamendua

Osteguna, martxoaren 22an. Poliki-poliki legazpiarrez bete den batzar aretoan, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren tailer berria egin dugu.

Inma Hernandez udaletxeko Agenda 21eko teknikariak, ongiatorria egin digu eta tailerrari hasiera emanez, **3 ohar** eman ditu:

- Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planaren bilakaera.
- Legazpin berotegi-efektuko gasen sorreraren bilakaera.
- Otsailaren 23ko Foroan adierazitakoaren aurrean, Zumarragako ospitaleak bidali duen eskutitza.

Eta, ondoren, **gaurko gai nagusia** aztertzeari ekin diogu: **“Agenda 21eko Foroa eta zaborrak Legazpin. Foroak, zer egin nahi du gai horretan?”**

Tailerra oso interesgarria izan da eta Foroak, hain korapilatsua eta beharrezkoa den zaborraren gaia lantzen jarraitzeko oinarriak zehaztu ditu. Beraz, bete dugu helburua! Ikus dezagun orain zertan geratu den kontua.

Zeintzuk? Tailerrea parte hartu dutenak

Batzar aretoa txiki geratu zaigu gaurko tailerrera hona hurbildu diren **70 pertsona inguru** hartzeko. Ezin izan dugu guztion izenak jaso; beraz, barkamena eskatu behar dugu eta **gure eskerrik beroena** eman nahi dizuegu, hona etorri eta gaurko saioan parte hartu duzuelako.



Sagrario Etxabe (zinegotzia) • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • M^a Gloria Martínez de Guereñu • Floren Gutiérrez • Mailo Pinillos (Ilinti merkatarien elkartea) • Lucia Areizaga • Arantxa Arizmendi • Bixente Garmendia • Javier Iraeta (zinegotzia) • Ana M^a Azurmendi • Maite Lonbide • Manuel Fernandez (Nagusilan) • M^a Jose Cantero (Nagusilan) • Pilar Makibar • M^a Cruz Lizarazu • Maite Odriozola • Conchi Madina • Isabel Vallejo (Olazabal institutua) • Txakel Urarte • Iker Ugarte • Teresa Vascon • Felix Gastañares • Amparo Perez • Victoria Andres • M^a Angeles Prieto (Buztintegi) • Koldobide Olabide • Maite Lazaro • Julian Auzmendi • Miren Murillo • Angel Alonso • Sote Plazaola • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Juan Carlos Agirre • Igor Urrate (zinegotzia) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Eta izena ez jaso arrear, bertan egon ziren herritar guztiak. Eskerrik asko zuei ere!

Edukiak: aztertu diren gaiak eta ondorio nagusiak

2 ohar


- Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planaren bilakaera.

Urtero Legazpiko Udalak, udal departamentu desberdinen laguntzari esker, Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planaren balorazioa egiten du.

Gaur egun indarrean dagoen Ekintza-plana 2008-2014 epealdirako diseinatu zen. Bere laugarren implementazio-urtean % 47ko izan da betetze-maila. Horrek esan nahi du, planean aurreikusitako ekintza guztietatik ondorengo hau dela betetze-maila:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztien parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Grafikoa: Legazpiko Agenda 21eko Tokiko Ekintza-plana osatzen duten ekintzen burutze-maila.

- Legazpin berotegi-efektuko gasen sorreraren bilakaera.


Legazpiko Udalak, klima-aldaketaren aurka egiteko plana dauka onartuta. Plan horretan aurreikusitakoaren arabera, Udalak udalerrriak sortzen dituen berotegi-efektuko gasen aireratzea kalkulatzen du eta horren segimendua egiten du.

Jarraipen horretan eskuratu diren datu nagusiak ondoko hauek izan dira:



- Legazpik, **urtero eta biztanleko, 7,7 tona CO₂** sortzen du.
- Industria kenduta, hauxe da sortutako bolumena: **5,1 tona CO₂, urteko eta biztanleko**. Emaita hori, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrientzako ezarritako Euskadiko batz bestekoa (5,0) baino zertxobait handiagoa da.
- **Sektoreka**, garraioa da gas gehien aireratzen duena (% 40), ondoren industria (% 34) eta, azkenik, bizitegi-sektorea (% 13).

Emisiones GEI del municipio por sector



- **Zumarragako ospitaleak bidalitako eskutitza.**

Joan den otsailaren 23ko Foroaren azkeneko tailerrean hondakinen gaikako bilketaren eta sorreraren gaineko datuak ezagutu genituen eta ondorengo debatean talde batek Zumarragako ospitaleak bilketa hori egiteko edukiontzi gehiago jartzea proposatu zuen. Zehazki, ospitaleko erabiltzaileek ezin dutela hondakinak bereizi esan zen, hondakinak gaika biltzeko edukiontzirik ez daudelako.

Esku hartze horri erantzunez, Legazpiko Udalak **eskutitza jaso du Zumarragako ospitaletik**. Eskutitz horretan ospitaleko zuzendaritzak ospitaleak ingurumenaren kudeaketarekiko konpromisoa hartuta duela azpimarratu du eta, batez ere, sortzen dituzten hondakin sanitario eta arriskutsuak kudeatzeko konpromisoa du. Horrezaz gain, ospitaleko ingurumen-iraunkortasuna hobetzeko Foroak egin ditzakeen proposamenak eta iradokizunak jasotzeko prest agertu da.

Horrela, Inma Hernandez teknikariak ondoko galdera egin dio taldeari: **Eskutitz horren aurrean, zein izango da Legazpiko Agenda 21eko Foroaren erantzuna? Zein iradokizun edo proposamen egin ditzakegu?** Ondoko hau erabaki dugu:

Zumarragako ospitalera bidaliko dugun eskutitzean sartuko ditugun arrazoia:

- Agenda 21eko Foroak **eskertu egiten ditu** emandako azalpenak eta, era berean, ingurumenarekiko konpromisoan eta iraunkortasunean sakontzen jarrai dezaten animatu nahi ditu.
- **Hobekuntza-proposamenak** ingurumena kudeatzeko planean sartzeko:
 - Langileei hobeto informatu behar zaio, ospitalean eta bertako sail desberdinetan hondakinen gaikako bilketarako edukiontziak non dauden jakin dezaten. Horrela, langile horiek erabiltzaileak informatzeko moduan egongo dira.
 - Ospitalean materia organikoa biltzeko aukera azter daiteke.
 - Leku zehatzetan gaikako bilketarako edukiontzi gehiago jartzea komeni den azter daiteke.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Hausnarketa: "Agenda 21eko Foroa eta zaborrak Legazpin. Foroak, zer egin nahi du gai horretan?"

Dinamizazio-taldeak proposatu duen abiapuntua hauxe izan da:

Zaborren gaien Foroak egin dezakeenaren gaineko hausnarketa beharrezkoa egiten duten arrazoiak:

- Azkeneko urteotan, gaia edozein izanda ere, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren ibilbide parte hartzailea eta funtzionatzeko era, ondorengo puntuetan oinarritu da:
 - Lehenengo gaiari buruzko informazioa jasotzen dugu (adibidez, mugikortasunari buruz, Plan Orokorriari buruz,...).
 - Ondoren, hobekuntzak sar daitezkeen, aukera desberdinak egon daitezkeen edo proposamenak egin daitezkeen,... aztertzen dugu.
 - Hortik aurrera, Foroaren ekarpena osatzen dugu eta hori izan ohi da Udalarri egiten diogun ekarpena.
 - Eta bukatzeko, Udala da erabakia hartzen duena.Hau da: Foroak bere zeregina bete du: aholkua ematea.
- Zaborren gaiarekin aldiz, Legazpiko Udaleko gobernu taldeak atez ateko bilketa-sistemaren alde egitea erabaki du eta horrek, nolabait, hankaz gora jarri ditu "joko-arauak".
- Gai horretan, ondoko hau da egungo egoera: Sasietako mankomunitateak ikerketa bat kontratatuko du laster. Ikerketak zati desberdinak izango ditu:
 1. Alde batetik, udalerrri guztietan atez ateko bilketa sistema ezarriz gero mankomunitatean sortuko litzatekeen egoera aztertuko du.
 2. Bestetik, bosgarren edukiontzia jarritz gero egoera hori zein izango litzatekeen aztertuko du.
 3. Eta azkenik, Legazpiko Udalak eskatuta, udalerrian atez ateko bilketa sistema ezartzeak sortuko lukeen egoera aztertuko du. Hau da, udalerrri bakoitzak sistema bat edo bestea aukeratu behar izan du, azterketa orokorra egiteko.

Eta, horren arabera, Udalak azkeneko erabakia hartuko du baina hasiera batean atez ateko sistemaren alde egiten du.

Beraz, parte hartzeko lekua da Foroa eta leku hori "zaintzeko eta mimatzeko" asmoarekin eta hondakinen kudeaketa gai korapilatsua eta baldintzatua dela aintzat hartuta, ondorengoa egitea beharrezkoa dela uste dugu:

- Geratu, eten bat egin.
- Epe motzera eta ertainera, zaborren gaia lantzeko Foroak dituen aukerak mahai gainean jarri.
- Eta horren arabera, Foroak erabakiko du gai horretan zer egin nahi duen; ze gai landu nahi dituen eta zeintzuk ez.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Testuinguru horretan, hauxe izan da egin de planteamendua:

- Lehenbizi, Foroari zer egin dezakeen eta hondakinen gaiari dagokionez, non har dezakeen parte esan diogu eta berak egin dituen ekarpenekin osatu dugu hori.

Hondakinen gaiari dagokionez, epe motz eta ertainera zer egin dezake Legazpiko Agenda 21eko Foroak? 5 dira aukerak:

1. Hondakinen gaiari dagokionez, jarreraren bat hartu aurretik, ondoko galderari buruz eztabaidatu eta sakondu behar dugu: **Birziklatzea, hautazkoa da ala betebeharra?**
2. Sortzen dugun zaborra murriztu behar dugu, **minimizatzea landu behar dugu**.
Beste hitzetan esanda: Eguneroko esparruetan eta lekuetan, sortzen ditugun hondakinak nola murriztu ditzakegun aztertuko dugu.
3. Sasieta mankomunitateak laster kontratatuko duen **azterketaren gaineko informazioa jaso** dezakegu eta horren gainean eztabaidatu.
4. Udalak, mankomunitatearekin batera, aukeratuko duen bilketa-sistemari eta zaborren kudeaketari buruz egingo duen **komunikazio-plana ezagutu** dezakegu eta ekarpenak egin, ondoren legazpiarrei horren berri emateko.
5. **Aukeratuko den bilketa-sistemari** (momentuz, gobernu taldeak atez atekoaren alde egiten du) **hobekuntzak proposatuko dizkiogu**, mankomunitateak egingo duen azterketan bizilagunekin zehaztu beharreko kontuak geratuko baitira jasotzeke.

- Segidan, pertsona bakoitzak aukera izan du Foroarekin landu nahi dituen gaiak aukeratzeko.

Gainera, gaur jende berria etorri da tailerrera eta, beraz, ondorengo bileretara etortzeko konpromisoa hartzen duten pertsoneri eskatu diegu iritzia.

- Emaitzari dagokionez, taldeak bere iritzia eman ahal izan du.

Zein izan da guzti horren emaitza? Oraintxe ikusiko dugu.

Emaitzak, Foroarekin landuko diren gaiak aukeratzeari buruz eta horren gainean eman den eztabaidari buruz:

- Lehenengo ideia:

“Herritarren parte-hartzearen ikuspuntutik eta Foroaren ibilbidea aintzat hartuta, gai honetan gobernu taldeak jarraitu duen egiteko modua ez da egokia izan”.

Hau da, zaborrak biltzeko sistema baten alde egon daitekeela kontuan hartu gabe, gobernu taldea herritarren iritzia jaso gabe eta sistema desberdinei buruz alde aurretik xehetasunak eman gabe, gobernu taldeak sistema baten alde egin du apustu eta ahots asko izan dira hori horrela egin izana kritikatu dutenak.

- Bigarren ideia:

“Hala ere, jende multzo inportantea prest dago gaia eta planteatu diren aukera desberdinak lantzen jarraitzeko”.

Zehazki, hau izan da botazioak eman dituen emaitzak:

Agenda 21eko Foroarekin lan daitezkeen gaiak	Prest dauden pertsona-kop.
1. “Birziklatzea, hautazkoa da ala betebeharra? Galderaren gainean hausnartu eta lan egin.	30 pertsona
2. Nola murriztu dezakegu sortzen dugun zaborra?	30 pertsona
3. Mankomunitatearen azterketaren emaitzen gaineko informazioa jaso eta eztabaidatu.	30 pertsona
4. Zaborrak kudeatzeko sistemaren gaineko komunikazio-plana. Informazioa eta ekarpenak.	16 pertsona
5. Zaborra biltzeko aukeratuko den sistema (printzipioz, atez atekoa) aztertu eta hobekuntzak proposatu	14 pertsona

- Hirugarren ideia:

“Informazio falta handia dago. Gaia korapilatsua eta inportantea da baina komunikabideetan izan duen eraginagatik baldintzatuta dago”. Izan ere, gaur jende asko hurbildu da hona atez atekoa zer den eta 5. edukiontzia zer esan nahi duen jakiteko. Eta erantzuna jaso gabe joan dira” (alde batetik, hori ez zelako gaurko tailerraren helburua).

Gaurko tailerrean, beraz, Legazpiko Agenda 21eko Foroak gai horretan zer egin nahi duen erabaki duela esan dezakegu. Zuen maila berean egoten saiatuko gara eta, eskerrik asko bidelagun izateagatik!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Amaiera eta agurra! hurrengo tailerrera arte!

Azkenaldi honetan tailerraren ordu eta erdia di-da batean pasatzen zaigu eta motz geratzen zaigu gaiak partekatzeko.... Seinale ona da hori! Legazpiko Agenda 21eko Foroa bizirik dago, oso bizirik, eta lan egiten jarraitzeko prest!

Beraz, erronka onartu eta datorren **apirilaren 26an egingo dugun tailerlean parte hartzerantz animatzen zaituztegu**. Egun hori Eskolako Agenda 21aren txanda izango da eta hauxe da ikastetxeak aurtengo ikasturtean aztertzen ari diren gaia: **elikadura iraunkorra**. Zain izango gaituzue!

Bukatu aurretik, zaborrekin zerikusia duten 2 abisu!

- Javier Iraetak jakinarazi digu EAJko Carlos Ormazabal jaunak hondakinei buruz hitzaldia eskainiko duela datorren astelehenean, martxoaren 26an, kultur etxean arratsaldeko 19:00etan.
- Atez ateko sistemari buruz Zero Zabor taldeak eskainiko du hitzaldia datorren apirilaren 12an, kultur etxean arratsaldeko 19:00etan.

Apirilaren 26an ikusiko dugu elkar! Bitartean, goza ezazue udaberriaz!

Eskerrik asko!